

MUko errugbiko eta eskubaloiko taldeak Espainiako Txapelketarako sailkapena lortu dute

2010/02/16

Pasadan asteartean, otsailak 9, jokatu zen **M.U.ko txapelketa**. Hiru fakultateen arteko txapelketa hau goizeko 9:30n hasi zen futbol 11kako partiduekin.

Goizean zehar jokatuko ziren futbola 11, futbola 7, areto futbola, saskibaloia, tenis eta fronteniseko partiduak. 14:00 inguru irabazle denak ezagutu genituen, hauek Kirol Zerbitzuak oparitutako forro eta frakez gain, Euskadiko Txapelketarako sailkapena lortu zuten.

Horrela, ia atsedenik gabe, otsailak 11 ostegunean goizeko 7:30 abiatu ginen Barakaldora Deustuko Unibertsitateak antolatzen zituen **Euskadiko Txapelketara**. Bertan, ikasleek errugbian, futbola 11n, futbola 7an, areto futboleant, eskubaloian, frontenisean, eskupilotan, padelean, palan eta mahai tenisean lehiatu ziren E.H.U. eta U.D.ko ikasleen kontra. Txapelketa giro hotza eta elurtsuarekin gauzatu arren, partaideek humore ona eta gogoak agertu zituzten. Partida denak berdintsu izan baziren ere, aipatu behar mahai tenisean eta errugbian lortutako garaipenak eta eskubaloiko taldeak bigarren talde bezala lortutako Espainiako Txapelketarako Fase "interzonalerako" sailkapena.

Hauetan ere gure ikasleek ere emaitza onak lortzea espero dugu.

[MUko txapelketako emaitzak \(pdf\)](#)

